

321.ZENBAKIA-2022-EKAINA-EURO BAT

BALEIKE

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA

ZUMAIA 2050EAN

**NOLAKO HERRIA,
HALAKO MUNDUA**





ENDAÑETak
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21

Erronka berriei
aurre egiteko,
aldatu beharra dago.
Iritsi da **TicketBAI**.

Enpresek aurrera egiten dutenean,
Gipuzkoak aurrera egiten du.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro



TicketBAI
GIPUZKOAN

gipuzkoa.eus/ticketbai



BALEIKE 321

2022-EKAINA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
GORKA ZABALETA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 4 | Hitz tantak Onintza Lete Arrieta
<i>Belen Imaz eta Jurdan Grijalba</i> | 28 | Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
<i>Aprea</i>
<i>Encarna Sanchez Torralba</i> |
| 6 | Hainbat aburu Gure Esku
<i>Uztailaren 2an burujabetza argiztatzera goaz!</i> | 30 | Gizartea Juan Luis Romatet eta
Maria Maya Manterola
<i>"Odola ezin da fabrikatu"</i> |
| 7 | Errematea Sara Ibarburen
<i>Itxaron</i> | 33 | Zientzia eta ingurumena Gorka
Zabaleta
<i>Nolakoa izango da Zumaian 2050ean?</i> |
| 9 | Elkarrikketa Aritz Mutiozabal
<i>Telmo Irureta: "Interesgarria litzateke minusbala aipatzen ez duten istorioak kontatzea gure pertsonaiek"</i> | 39 | Nire txanda Imanol Azkue Ibarbia
<i>Geltokirako begirada etena</i> |
| 11 | Erreportajea Maria Maya
Manterola
<i>Berrituta baina leheneratuta</i> | 43 | Literatura Antton Peñalba
<i>Isiltasunaren kontra idatzitako gutun mingarria</i> |
| 20 | Erretratua Juan Luis Romatet
<i>Iñaki Urreizti, kameralaria</i> | 44 | Kultura Juan Luis Romatet
<i>Berrenetik sortzen den abstrakzioa</i> |
| 25 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Nola kudeatu gurasoen arteko banaketa</i> | 45 | Agenda |
| 26 | Plazan bazan | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Lagarrena bai?</i> |

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
jlromatet@ukt.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta

Aritz Mutiozabal

Imanol Azkue Ibarbia
Argazkilaria
Arnaitz Rubio Aprea
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
faizpurua@ukt.eus
Administrazio arduraduna
Uxua Ostolaza
uostolaza@ukt.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 1.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



Belen Imaz eta Jurdan Grijalba

TESTUA ETA ARGAZKIA: ONINTZA LETE ARRIETA

Aurten 23. urtez hartu dute Itzurun hondartzako Enbata kantinarek ardura Belen Imaz eta Jurdan Grijalba zarauztarrek. Maiatzaren hondarretik, egunero ari dira irekitzen taberna.

Nolakoa aurreikusten duzue aurtengo uda?

Jurdan Grijalba: Hori uda amaitzean esango dizugu, bai nola joan den uda, bai zenbat jende eta nongoa etorri den. Hemen, hamabost egun ona egin edo txarra egin, sekulako aldea da. Abuztuko hamabostaldi bat ona tokatzen bada, gau eta egun lanean ari zara.

Belen Imaz: Bai, beti esaten dugu udako balorazioa udaren amaiera-amaierara arte ezin dela egin, batez ere eguraldiagatik. Gainera, beti izaten dira ezustekoak. Pandemia ondorengo aurreneko uda da, eta zer gertatuko da? Besteetan baino turista gehiago etorriko al dira?...

Hainbeste urtean aldatuko ziren kontuak...

J.G.: Asko, bai. Batetik, geure lana, lehen bi hondartza eta hamaka eta toldo zerbitzua kudeatzen genituelako. Alde horretatik, orain eramangarriagoa da. Bestalde, bezeroak ere aldatu dira: lehen lan gehiago egiten genuen Urola aldeko jendearekin; gaur egun, kanpotarrarekin lehengo aldean asko egiten da.

B.I.: Gizartea aldatzen doan heinean hemengo ohiturak ere aldatzen joan dira: hondartzara etortzeko era, jateko era, eguna eta gaua aprobetxatzeko era, dena. Esaterako, orain zerbait azkar jan nahi du jendeak, bokata edo hanburgesa bat, eta hondartzan jarraitu edo etxera joan. Aurreneko urteetan, berriz, aurreneko platera, bigarrena, postrea, kafea eta kopa behar izaten zuten. Nafarrak ziren onenak; patxaranik gabe ez ziren konformatzen.

Oso gazte hasi zineten kantina kudeatzen.

B.I.: Bai, bi bikote ginen, denok oso biziak, gazte-gaztetatik lanean hasitakoak eta ordurako Zarauzko tabernetan edo hondartzako kantinetan lan egindakoak. Zumaiako kantinarek aukera ateratu zen, eta neuk ez nuen Itzurungo hondartza ezagutu ere egiten, baina hala suertatu zen, eta...

Oraindik ez dakigu nola pasatu diren 23 urte hain azkar...

Seinale ona izango da hori, ezta?

B.I.: Seinale ona da, bai, betetzen gaituen erronka delako. Kantina edukiko ez bagenu ere ez ginatkeen hondartzan etzanda egongo; ez gara geldirik egotekoak. Bestetik, ni irakaslea naiz eta nire oporrak hemen igarotzen ditut, eta Jurdan autonomia da, eta horrek ahalbidetzen digu bi lanak bateratzea.

J.G.: Hau osagarri gisa hartu dugu beti, hemen uda txar bat tokatzen bazaizu agian ez duzulako irabaziko bizitzeko lain.

B.I.: Horrez gain, toki honek engantxatu egin gaitu. Hondartza honek xarma ikaragarria dauka, eta herriak ere bai. Zarauztarrak gara, baina Zumaiako herria guretzat oso kutuna da, eta pentsatu nahi dugu zumaiarren artean ere badugula gure tokitxo. Eta beste gauza bat: Enbata izena jarri genion kantinari Zarauzko Arraun Klubak traineruari Enbata izena jarri aurretik! Hori argi gelditu dadila!

Bitxikeriak mila izango dituzue kontatzeko, ezta?

B.I.: Bai. Zerua urdin-urdina zegoen batean, 14:00ak aldera, bat-batean ekaitza sartu zen. Euri zaparrada erdian jendea hasi zen alde egiten, baina Nafarroako familia bat, mahai luze-luze batean terrazaren amaiera-amaieran, hantxe gelditu zen. Ez zutela alde egingo jan arte. Eguzkitako pila batekin ahal bezala tapatu genituen, baina platerera ur tantak erortzen zitzaizkiela bazkaldu zuten. Nik eta beste zerbitzari batek platerak hartu eta aterpetik esaten genuen: bat, bi eta hiru, eta platerak korrika eramaten genizkien. Esan ziguten bizitzako bazkari onena izan zela, kar-kar.

J.G.: Beste behin, hippie batzuk etorri ziren furgoneta erraldoi batean 02:00etan, eta beraien artean haserretu edo egin ziren, gero guk ere esan genien ezin zutela hor egon, eta halako batean, furgonetako giltzak itsasora bota zituzten. Udako hiru egun eguzkitsutan egon zen furgoneta erraldoi hura hemen erdian, ez atzera, ez aurrera. ■■■





Uztailaren 2an burujabetza argizta

Denbora aurrera doa, eta nola, gainera.

Batzuetan modu linealagoan, eta besteetan hutsean saltoak eginez.

Konfinamendu eta zomorroak gorabehera, begirada pixka bat urrutiago eramán dugu, eta ia ahaztu dugun arren, gogoratu dugu duela bost urte eskuz esku eta buruz buru auzolan itzela eginez aritu ginela.

Denon gogora ekarri nahi izan dugu, Zumaian (baita inguruko hainbat herritan ere) 2017ko maiatzaren 7an egin zen ariketa demokratikoa: herritar ugari parte hartu zuen antolaketa handi eta zabalean egin genuen herri galdeketa. Zumaian % 34,30ak hartu genuen parte gure botoarekin, eta 2.687 lagunek ozen esan genuen euskal herritarrok gure erakunde politikoak, gure

estatus politikoa eta autogobernu maila, eta gure lurraldeen arteko harremanak zuzenean, mugarik gabe eta libre erabakitzeke eskubidea dugula.

Ordutik hona bost urte igaro dira, eta ozen esaten jarraitzen dugu burujabe izatea aurrez aurre ditugun eraldaketa eta erronkei eustea dela, gertatzen zaigunaren gaineko erantzukizuna beste inoren eskuetan ez uztea: inplikatzeko, konprometitzeko eta erabakitzeke. Jostun eta artisau izan gara,

**ZUMAIARROK ERE
BADUGU GURE
GAILURRA. ANIMA
ZAITEZ ELKARREKIN
ARGIZTATZERA**

zubigile eta katebegi. Herri gisa, jakin dugu oztopoen aurrean erresilientziaz jokatzeko, eta horretan jarraitu nahi dugu.

Libre eta burujabe izan nahi dugu, gure etorkizuna erabaki nahi dugu, eta herritarren borondatea entzun eta errespetatu dadin eskatzen dugu. Ez gehiago, baina ezta gutxiago ere.

Aldarri honetan bat egiten dugu beste hainbat herrirekin, eta bat egite honetan kataluniarro eta euskal herritarro erronka berri bat jarri zaigu begien aurrean. Uztailaren 2an, katalanek eta euskaldunok 300 gailurretik gora argiztatuko ditugu Pirinio osoan zehar.

Euskal herritarrok 100 gailurretik gora argiztatuko ditugu, baina gure gailurra ez dago Pirinioetan, gure gailur edo helburua *zortzimilako* bat

HAUXE BAI JENEROA!



atzera goaz!

da: herri gogo berpiztu nahi dugu, burujabetzarako prozesu bat abiatzeko. 100 gailur argiztatzea baino, 200 herri aktibatzea.

Zumaiarrok ere badugu gure gailurra: Manddale. Ibardinetik 30 minutura dagoen muino horretan dugu hitzordua eta elkargunea. Uztailaren 2an 18:30ean abiatuko gara autobusez eta 20:30ak ingururako zapalduko dugu argiz beteko dugun mendia. Giro ezin hobean beteko dugu 22:30ak arteko tartea, eta orduan piztuko ditugu gure argiak, mundu osoari erakusteko hemen badela herri bat, badela asmo sendo bat eta badugula indarra aurrera egiteko.

Eta hori guztia egiteko, noski, zu behar zaitugu. Zure argiak gurearekin bat egin eta denon artean, orain arte bezala, hor

gaudela esatera deitu nahi zaitugu. Erronka honetan parte hartzeko izena ematera animatu nahi zaitugu, bai Gure Eskuren webgunean (gureeskudago.eus), bai kalean jarriko dugun mahaian (datak aurrerago zehaztuko ditugu).

Munduko nazio guztiek bezala, gure etorkizuna autodeterminatzeko eskubidea dugu. Horrenbestez, erabakitze tresnak behar ditugu herritarren eskura, besteak beste, erreferendumak.

Erakunde publikoei dagokie *impasse* egoera gainditu eta erabakitze tresnak legeztatzea eta garatzea, eta herritarroi bultzatzea... Hori bai, inoren zain geratu gabe! Erreferendum bidez erabakitzea posible egiteko norabidean, bide berriak urratzeko prest gaude. Zatoz gurekin! ■

ERREMATEA



SARA IBARGUREN

Itxaron

Negu luzearen ondoren gaínean dugu uda, eta nabaritzen da jendea gogoz dagoela. Azken bi urteetan, zailtasunak zailtasun, ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatu gara, baina beti egin dugu topo oztoporen batekin. Itxaron beharra, adibidez. Duela urte batzuk sinestezina litzateke guretzat hondartzara sartzeko horrelako ilarak egin beharko genituela pentsatzea, hondartza jendez gaínezka zegoelako eta distantziak errespetatzen ez zirelako. Ordubetez ilaran egon ostean, hondartzara jaitsi eta bata bestearen gaínean egoteko, gaínera. Edo sakelako aplikazio batean hondartzetako semaforoa berde kolorez noiz argiztatu zain egon beharko genuela, sakelakoak gure gustuko hondartzan lekua dagoela jakinarazi arte.

Tristea izan da bizi izan duguna, baina badirudi lehen ginenera itzultzen ari garela. Aurtengo santelmoak izan dira horren adibide. Herrian zegoen giroa aparta izan zen egun horietan zehar, eta jarrai dezala aurrerantzean ere horrela izaten, ondo pasatzeko eta momentua bizitzeko sekula gehiago itxaron behar izan ez dezagun. ■



PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



Aita Mari JATEETXEA

679 10 31 67
Juan de Zigarán, 1
Zumaia
@aitamarijateetxea@gmail.com



AIZPURUA LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarte
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00



ALBERDI dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61



Amama Librurua

tel. 943-57 46 51
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



Ane Ibarretxe - Hariz Klinika

Arantzabide, 3 beheka • Zumaia
943-54 35 70 • 688 73 38 56



OKINDEGI Arkipe

Nagusia, 2 - tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER



ATARI TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Arantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69



BOSCH Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com



AXA

943-53 03 97
688 71 26 21
Kantauri 2, beheka
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es



BAKUN

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net



Basodi albaitaritza

Albaitaria
Itzi Garmendia

Basodi, 7, beheka • tel. 943-14 33 10
velernaria@basodidivinet.com
www.basodidivinet.com

Geloz: 11-13 / Armatzak: 15-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxia
Larriak: 605 72 87 07 Elbez etxeko zerbitzua



BASUSTA erretegia - asador

José Blázquez

Palxita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-84 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



EDU ZUMAIKO OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16



"Interesgarria litzateke minusbalia aipatzen ez duten istorioak kontatzea gure pertsonaiek"

TELMO IRURETA AKTOREA

Lanik ez zaio falta Telmo Irureta aktore zumaiarrari. Ekainaren 10ean 'Sexberdinak' antzezlanak aurkeztuko du jaioerrian. Azken hilabeteotan bere lehen filma ere errodatu du, 'La consagración de la primavera', hain zuzen ere. Gai ugariaren inguruan hitz egin du elkarrizketa honetan.

Testua: **Aritz Mutiozabal**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Hitz egin dezagun sexuaz. Baina hitz egin dezagun gorpil aulki batean eserita eta gorputzeko atalak mugitzeko aukerarik gabe. Hausnartu gabeziek eta karentziez, baina baita premiez eta eskubideez ere.

Minusbalotasuneko tabuak hautsi eta ikusgarri bihurtu. Horrela aurkezten dio Telmo Iruretak (Zumaia, 1980) publikoari *Sexberdinak* antzezlanak, Aitziber Garmendia bidelagun duela. Komediatik badu, eta tragediatik ere bai, eta bizitza bera bezain gordina da. Horrexegatik edukitzen ari da harrera ona taularatzen ari diren toki guztietan, eta hitzorduak nonahi sortzen ari zaizkie; Aita Mari aretoan ekainaren 10ean eskainiko dute, 20:00etan.

Udaberria maitasunaren urtaroa da. Maiteminduta al zaude?

Hori polita da, baina ni oraindik ez nago maiteminduta.

Eta antzerkiaz?

Hori bai! Antzerkiaren magiaz maitemindu nintzen, bai.

Noiz sentitu zenuen *fletxazoa*?

Antzerki eskolan izan zela esango nuke. Betidanik gustatu izan zait interpretazioaren mundua, baina antzerki eskolan konturatu nintzen benetan zer interesantea den teatro giroa. 2012an hasi nintzen eskolan, eta 2015ean bukatu nuen; harrezkero, antzerki munduan nabil buru-belarri.

Esaten dute maitasuna eta sexua ez direla gauza bera.

Ez, ez dira.

***Sexberdinak* al dira?**

Antzezlanean esaten dugu sexua ez dela beti maitasuna, baina maitasuna badela sexua. Esaldi nahasgarria dirudi, baina ideiak oso garbi ditut.

Tabuak hautsi nahi izan dituzue proiektu honekin. Izan ere, badirudi gizartearentzat ez duzuela sexurik eta sexu harremanik minusbalotasun bat duzuenok.

Haur txikiak bagina bezala ikusten gaituzte edo aingerutxoak bezala. Gure ezgaitasunetara

mugatzen gaituzte, eta ez dira konturatzen gaitasunak ere baditugula.

Antzezlan hau *Geuretik sortuak* egitasmoaren barruan sortu zen. Aspalditik al zeneukan ideia buruan?

Egia esan, bai. Mireia Gabilondo zuzendariarekin beste lan bat egin nuen 2017an, *Strip-tease* izeneko, eta gaiarekin bazeukan lotura zuzena. Bertan, estereotipoei, biluzteari eta desioei buruz hitz egiten zen, eta oso gauza intimoa egin genuen minusbaliotasunaren gaia jorratuz. Hori horrela, beste zerbait egiteko gogoz geratu ginen, eta hortik tiraka sortu da *Sexberdinak*, Kepa Errastirekin batera idatzi dudana.

Zaila izan al da biluztea?

Ez, niri ez zait zaila egin. Gainera, niretzat pixka bat terapeutikoa izan da. Nire gauzak kontatuta, jada ez dira nire barruan geratzen, erakusten duzun zerbait bihurtzen da, ikasteko ere balio du... Izan ere, publikoaren erreakzioekin ere asko ikasten da.

Agertoki gainera igo, zure errealitatea kontatu, eta tabu horiek azaleratzen dituzunean, nolakoa izaten da publikoaren aurpegia?

Barre egiten dute, eta negar pixka bat ere bai. Komediatik badauka, baina baita puntu dramatiko ere. Gustuko dut publikoaren aurrean biluzten naizelako, baina, era berean, lasai nago, zeren taula gainera igotzen dena ni izateaz gain, pertsonaia ere bada. Beraz, inork ez daki eszenatokian hitz egiten ari dena zer puntutaraino naizen ni eta zer puntutaraino den pertsonaia.

Beraz, autofikziotik ere badu antzezlanak.

Hori da. Kontatzen diren gauza batzuk nireak dira; gauza asko. Antzezlaneko pertsonaiak eta nik antz handia dugu, baina ez naiz ni. Orduan, hara! Tranpatxo bat egiteko lizentzia hartzen dut nahi dudana kontatzeko.

Nolanahi ere, zu zeu ere bazara txantxazalea eta zirikatzailea, ezta?

Beti izan naiz horrelakoa. Jendeak badaki nolakoa naizen. Ni pixka bat ezagututa, segituan dakizu hori. **Terapeutikoa izan da zuretzat, eta terapeutikoa izan al daiteke zure egoera berean dagoen jendearentzat?**

Etorri al zaizu norbait eskerrak ematera?

Bai, etorri zait eskerrak ematera nire egoera antzekoan dagoen jendea, baita minusbaliotasuna kanpotik bizi dutenak ere. Mutil batek esan zidan bazela garaia gure sexualitateari, eskubideei eta egoerari buruz hitz egiteko. Antzezlan honek zerbaitetarako balio baldin badu, ni oso pozik!

Antzezlanak harrera oso ona izan du. Espero al zenuen halako oihartzunik izaterik?

Aurreikusten nuen, bai. Proiektua bukatu genuenerako, 25 emanaldi lotuta genituen, eta hori sekulako zortea zen, are gehiago pandemia ondoren. Gainera, berezitasun moduan, publikoa gurpil aulkietan eserrarazten dugu ni bezala, apur bat nire egoerara gerturatzeko.

Eta sexualitateaz hitz egiten hasten zara...

Baita maitasunaz ere.

Zaila al da maitasun harreman bat izatea zu bezalako egoera batean dagoen pertsona batentzat?

Zaila da, baina ez gaitasun ezagatik, baizik besteen beldurrengatik edo aurreiritziengatik. Jendea ez dago prest ni bezalako norbaitekin egiteko. Hori aldatzeko, ea pixkanaka-pixkanaka zerbait egiten dugun. Behintzat, antzezlanak irauten duen denbora horretan ikusleari hausnarrarazteko balio badio, primeran!

Aktore moduan ere handicap-a da gurpildun aulkia.

Hori muga bat da paperak lortzeko garaian, ezta?

Zailagoa da, noski. Beti zarena zarelako izango duzu zailtasunen bat: emakumezko pertsonaiak gutxiago daude gizonezkoenak baino, adibidez, baina minusbaliotasuna duten pertsonaiak are gutxiago dira emakumeenak baino. Bakoitzak du bere zailtasuna. Nolanahi ere, iruditzen zait interesatea dela minusbaliotasuna erakustea, errealitatean bezalaxe. Hain zuzen ere, egunerokoan gurpil aulkian dabil jendea, eta telebistan edo antzerkian gutxitan ikusi dut nik.

Hori islatzea inportantea dela uste dut. Orain defendatu behar dugu *minus* pertsonaia gehiago.

Horri lotuta, pelikula potolo batean hartu duzu parte:

***La consagración de la primavera*. Nola sortu zen udaberri hori?**

Hautaprobara aurkeztu nintzen Madrilen, garun paralisia zuen pertsonaia baterako aktore bat behar zutelako. Ahal zuen izan garun paralisia zuen aktore bat, edo itxurak egin ditzakeen aktore bat. Nik uste dut ongi egon zela guri ere aukera ematea, paper hori gurekin bat datorrelako, eta azkenean, hartu egin ninduten.

Zer moduzko esperientzia izan da?

Oso aberatsa. Emma Suarezen semearena egin dut, eta oso ondo egon da. Valeria Sorolla aktorea da protagonista nagusia, oso jatorra bera, eta Fernando Franco zuzendariarekin ere pozik aritu naiz. Honako hau nire lehen film luzea da. Orain arte antzerkia landu dut, telebistan aritu naiz eta film laburretan hartu dut parte, baina *La consagración de la primavera* da nire estreinako pelikula. Beti gogoratuko dut hori.

Ba al dakizu noiz estreinatuko duten?



Oraindik ez, baina laster izango dela uste dut, urte bukaera baino lehen. Udazken aldera izango dela pentsatzen dut.

Uste duzu film horrek ateak zabaltu ahal dizkizula?

Espero dut baietz! Espero dut, behintzat, aterik ez ixtea.

Euskal Herriko mugez kanpo, Espainian ezagutzera emateko erakusleihu ona izango da, nahiz eta aurretik *La que se avecina* telesailean ere agertu zinen.

Tira, kapitulu bakar batean agertu nintzen, baina nola ehun aldiz errepikatu duten, ematen du *La que se avecina* telesailean nagoela egunero. Egia esan, ni gustura nabil antzezten, eta berdin dit Euskal Herrian edo Euskal Herritik kanpo aritzea, lana dagoen bitartean. Euskal Herritik kanpo ezagutzen baldin banaute, aukera gehiago sor daitezke.

Aktore ez ezik, sortzaile ere bazara. Zuzendari edo gidoiari gisa proiekturik baduzu buruan?

Zuzendari izatea lan handia da, erantzukizun gehiegi eskatzen baitu. Azkenaldian, nahiago dut besteek esatea zer egin behar dudan edo nola antzeztu behar dudan; gauzak erabakitzea oso nekagarria da. Momentu honetan erosoago sentitzen naiz aktore lanetan. Gero ez dakit zer gertatuko den, bizitza interesantea bezain aldakorra baita oso. Oraingo Telmo ez baita duela bost urteko Telmo bezalakoa. Aldatu egin naiz.

Nolakoa zara, bada, orain?

Ez dakit, baina *sexberdina!* (barreak)

Ausartagoa, akaso?

Ezberdina, eta pixka bat jakintsuagoa. Ez jakintsua, oraindik asko dudalako ikasteko, baina denboraren poderioz eskarmentu gehiago duzu, bizitako esperientziengatik eta izandako disgustuengatik. Horregatik diot batzuetan irabazi egiten dela, eta besteetan, ikasi.

Noraino iritsi nahiko zenuke?

Noraino? Ez dakit... Ahal den lekuraino.

Aktore bezala, beste genero batzuk landu nahiko zenituzke, esaterako, musikal bat?

Biziki gustatuko litzaidake, baina ez dut ongi abesten. Ezinezkoa zait. Musikal baterako hautapropa batean zera esango lukete:

Hurrengo! (barreak) Zalantzarik gabe, gustura probatuko nituzke gauza berriak, adibidez, beldurrezko istorioren batean gaizto papera egin edo oso dramatikoa den kontakizunen bat.

Etiketatuta bezala ikusten al duzu zeure burua?

Ez dut uste denborarik egon denik etiketatzeko; oraindik goiz da horretarako.



"ESKERRAK EMAN DIZKIT EGOERA ANTZEKOAN DAGOEN JENDEAK, BAITA KANPOTIK BIZI DUTENЕК ERE"

"INTERESANTEA DA MINUSBALIASUNA ERAKUSTEA ERREALITATEAN BEZALAXE"

"NIRE PERTSONAIA FAVORITOAK EDO NIRETZAT EROSOENAK DIRENAK ZIRIKATZAILE HUTSAK DIRA"



Baina telebistan ikusi zaitugunean, *Barre Librea* saioan, kasu, edo bakarriketetan, nabarmena da zure umore ironiko eta ganberro hori.

Nire pertsonaia faboritoak edo niretzat erosoena direnak zirikatzaile hutsak dira. Umorea ironiarekin egitea gustatzen zait, pixka bat xaxatzeko. Baina baita inteligenteak ere. Adibidez, askotan nire egoera fisikoan egonda, jende askok uste du burua ere ondo-ondo ez daukadala, eta nahi gabe infantilizatu bezala egiten naute. Horri dagokionez, badago antzezteko paper mota bat agian ez nukeena onartuko. Oraindik ez didate eskaini, baina pertsonaia oso tonto bat antzezteak ez zait komeni. Gorpil aulkian dauden pertsonaia askorik ez dago, eta behin aukera dugunean, ez dugu inozoarena egingo, bada.

Zure egoeran daudenei tonto paperak eskaintzen al dizkiete, ala?

Ni bezalakorik ez dut ikusten interpretazioan. Nik ez dut ikusi telebistan fisikoki ni bezala dagoenik. Behin hori lortuko bagenu, ikusgarritasuna

ematea, ezin gara tontoak bagina bezala agertu. Tontoak izan daitezela beste batzuk, eta, hartara, gu izango gara bertan agertzen diren *minusak*.

Argi dago paper gehiago egon behar dutela eta ikusgarritasuna eman behar zaizuela.

Hori da, eta jendeak ikus dezala gai garesti beste gauza batzuk egiteko. Minusbalotasuna baldin baduzu, zure pertsonaiaren trama hori izaten da maiz, nola bizi duen elbarritasuna eta nola moldatzen den eguneroko bizitzan. Baina interesgarria izango litzateke gai hori aipatu gabe beste istorio bat edukitzea pertsonaia horrek. Ondoren, ikusiko da pertsonaia aulkian doala, baina gai nagusia ez izatea minusbalotasuna bere horretan. Hori, adibidez, gertatzen zen garai batean pertsonaia homosexualekin. Gaur egun, pelikula edo telesail gehienetan normaltasun osoz azaltzen dira, eta ez da hori izaten gai printzipala. Lesbiana zara, bada oso ondo, baina zure kontakizuna beste bat da. Gure kasuan ere aurrerapauso hori ematea litzateke garrantzitsua. ■■■


Berrituta baina leheneratuta

San Pedro parrokia izan da bere bizitokia azken mendeetan, baina azken hilabeteotan parrokiako kaperatik kanpo egon da XV. mendeko Mendaro Marinelaren taula flandiarra, zaharberritze lanak egin baitizkiote. Aste Santuan heldu zen berriz ere Zumaia, itxura berrituarekin, baina bere esentzia ahaztu gabe; berrituta baina leheneratuta.

Testua: **Maria Maya Manterola.**
Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta Maria Maya Manterola.**

Vera Aldabe zaharberritzaileak eta beste hainbat adituk esku hartu dute XV. mendeko Mendaro Marinelaren taula flandiarrean, hura zaharberritzeko. Oroitzapenezko obra da Mendaro Marinelarena, Aldaberen esanetan. Juan Martinez de Mendaro kapitainak San Pedro parrokiari emandako taulan XV. mende amaierako naoak irudikatzen dira. Goialdean Amabirjina agertzen da Jesus haurtxoarekin, eta ezkerraldean, San Pedroren irudia ageri da. Haren aldamenean, belaunikatuta ageri da Mendaro Marinela taularen emailea. Eskuinaldean, berriz, Santa Katalinaren irudia ikusten da, liburu bat irakurtzen, eta atzean, gizonezko baten burua. Beheko zatian, nabigatzen ari diren ontziak ikusten dira. Uste denez, Mendaro Marinelak zuzendutako ontzien garaipena irudikatzen da taulan, 1475. urtean Gibraltarko itsasartean, Portugalgo eta Genovako armaden aurkako garaipena, alegia. Ezkerreko ontziak Portugalgo armariak ditu, eta eskuinekoak, Gaztelakoak.





Ezkerrean eta erdian, Aldabe eta Cardaba taularen laborategiko emaitzak eskuan dituztela.

Eskuinean, Cardaba, taularen erradiografiari buruzko azalpenak ematen.

Dena den, Aldaberen hitzetan, ez dago jakiterik obra noizkoa den, garai hartan Pazko egutegia erabiltzen zutelako, eta, beraz, ez dagoelako jakiterik egutegi horren arabera sinatu ote zuten 1475. urteko datarekin.


Jatorriaren inguruan, adituek baieztatu ahal izan dute flandiarra dela. Herbeheretan sortua da, Baltikoko egurrekin egindako markoa baitu inguruan. Teknika tradizionalarekin margotutakoa da, margoen tonu urrekara eta dirdiratsuak tarteko.

Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa den Gordailuan egiten du lan Aldabek: elkargune bat da Gordailua, jabe eta jatorri desberdinetako funtsak zaintzen ditu erakunde horrek. Bilduma bateratua osatu ez ezik, kudeatu ere elkarlanean kudeatzen du. Milaka ondare etnografiko, artistiko eta arkeologiko gordetzen ditu, eta Irunen du egoitza.

Prozesu makal eta arretatsua

BALEIKEk Gordailura egindako bisitan, Irene Cardaba eta Vera Aldabe zaharberritzaileak aritu dira zaharberritze prozesuaren inguruan hizketan. Cardabak azaldukoaren arabera, anoxia izeneko prozesua aplikatu zioten taulari lehenbizi. Prozesu horren bitartez, taulan zeuden izaki bizidun guztiak akabatu zizkioten, onddoak eta xilofagoak baitzituen. Gauza bera egiten dute Gordailura iristen diren pieza guztiekin, biltegietan infekzioak ez hedatzeko neurri gisa.

Biltegietan klima egonkorra da, eta, horretarako, teilatuan dituzten plaka fotovoltaikoek etengabe egiten dute lan. "Hogei gradu eta %60ko hezetasuna izaten dira beti hemen. Nahiz eta bunker bat izan, kanpoko tenperatura aldaketak tarteko, etengabe egin behar du lan sistemak", azaldu du zaharberritzaileak. Cardabaren hitzetan, kostu altua du sistemak, eta jasagarritasunaren bidean sakontzen jarraitzeko ikerketak egiten dituzte aldian-aldian.



Gordailuan, ur azpian aurkitutako pieza arkeologikoak igerileku moduko batean izaten dituzte, ordura arteko baldintza berak izan ditzaten. Taula flandiarrari dagokionez, Cardabak azaldu du horregatik itzuli dutela lehen zegoen kaperara: "Azterketa bat egin genuen jakiteko parrokian zer hezetasun duen horma bakoitzak, nondik sartzen diren aire korronteak eta zeintzuk diren euriteen ondorioak, eta erabaki genuen lehengo lekuan ezartzea berriz ere, bitrinarik edo babesgarririk gabe. Izan ere, baldintza horietan mantendu dira materialak ondo, eta hemendik aurrera kontrolatu behar dena da lizun izurrik ez egotea". Behin taula zaharberritu eta gero, zunda batzuen bidez egingo diote materialen egoeraren eta izurriteen segimendua. Halako piezen esku-hartzeak egiteaz gain, Cardabaren ustez kontserbazioa ere beren lanaren parte garrantzitsua da.

Sintomak, probak eta tratamenduak

Erradiografia batek uzten ditu agerian piezaren historiaren sekretuak. Margolana zeharkatuta ikusten da horrela: gune ilunenak, esaterako, X izpiek zeharkatutako guneak dira, eta, beraz, ondoriozta daiteke gune horietan ez dagoela pinturarik. Pieza ikusita atzeman daiteke esku hartzeak izan duen edo ez eta non dagoen gainetik margotuta, baina ezin da jakin geruza hori noraino irits daitekeen. X izpiekin batera, lanpara ultramareak ere erabiltzen dituzte azterketa horiek egiteko, eta horiek gainazalaren inguruko informazioa ematen dute; infragorriek, berriz, azpiko marrazkiarena, zirriborroena.

Taula flandiarrari egindako interbentziorik garrantzitsuena 1965. urtekoa da, Aldaberen arabera. Zaharberritze prozesu hari buruz, ordea, bi orriko informe tekniko bat besterik ez dute. "Orain egin diogun guztia ondo dokumentatuta uztea komeni da, hemendik urte batzuetara pieza beste norbaitek hartzen badu, jakiteko zer egin genion guk hemen", azaldu du Cardabak. "Pieza

**ZAHARBERRITZEAZ
GAIN, KONTSERBAZIOA
ERE BEREN
LANAREN PARTE
GARRANTZITSUA DA**

**TAULA FLANDIARRARI
EGINDAKO
INTERBENTZIORIK
GARRANTZITSUENA
1965. URTEKOA DA**



Aldabe eta Cardaba, taula flandiarren erradiografiaren aurrean.

PIEZAK "EDERTASUN ORIGINALA" BERRESKURATU DU, PARROKOAREN HITZETAN

BIDASOROK "PARROKIAKO ALT XORRAK" BISITATZEKO GONBITA EGIN ZUEN

bat ezagutzen ez baduzu, ezin duzu ondo kontserbatu", gaineratu du.

Biltegian sartu orduko, zenbakia eta QR kodea ipintzen diote pieza bakoitzari. Cardabak emandako datuen arabera, pieza arkeologikoak kontuan izan gabe, 78.000 pieza inguru jasotzen ditu Gordailuak, eta beharrezkoa da guztiak ondo katalogatuta izatea.

Taula flandiarrari dagokionez, 2020ko udan heldu zen pieza Gordailura. Belgikatik euskarrietan aditua den gizon bat etorri zen, eta hasi zen aztertzen euskarria noiz muntatu zen. Gero, tailerrean egin zuen lan Aldabek. Tailer partekatua da: bost gune daude, eta material ezberdinak aldi berean lantzen dituzte: ehunak, margoak zein papera. Carlos Sanzen eta Nestor Basterretxearen obrak zaharberritzen ari dira orain.

Aldabek kontatu du bera izan dela obra ukitu eta jatorrizko piezara gerturatzen saiatu dena, baina prozesuan parte hartu duten ogibide guztiak aipatu nahi izan ditu, garraiolarietatik hasita. "Pertsona askok osatutako engranajea" da prozesua, eta ez da behar bezainbeste kontuan hartzen nahitaezkoak direla guztiak, Cardabaren ustez.

Harrera ekitaldi xumea

Taula zaharberrituari harrera ederra egin zioten joan den maiatzaren 7an San Pedro parrokian, eta Pedro Laskurain parrokoak hitzartzean eskerrak eman nahi izan zizkien zaharberritzearen prozesuan beren alea jarri duten guztiei. Parrokoaren hitzetan, "ondare aberatsa" dute parrokian, eta "harro" dago kristau komunitatea. Era berean, nabarmendu zuen erantzukizun handia dutela ondarea behar bezala zaindu eta transmititzeko, eta bide horretan, lagundu duten instituzio eta boluntarioei egin zien aipamena.

Obrari dagokionez, parrokoaren ustez "edertasun originala" berreskuratu du, eta Vera Aldabek eta bere taldeak "lan ikusgarria" egin dutela uste du Laskurainek. Ekitaldira joan zen Juan Pablo Aroztegi Zumaiako parroko ohiari eskerrak eman zizkion, era berean, hark jarri baitzituen artelana zaharberritzeko prozesuaren oinarriak.

Aldundiko ordezkari Harkaitz Millanek hitz egin zuen Laskurainen ondoren. Millanen hitzetan, "egun pozgarria" izan zen harrera ekitaldikoa. Izan ere, taula flandiarra parrokiara itzulita, haren edertasunaz gozatzeko beta izango dute aurrerantzean bisitariek, "ondarea ez baita sortu inork ikusi ez dezan ezkutuan egoteko".

Obra "aipagarriena"

Pandemiaren testuinguruan, aldundiak abiatutako Piztu Kultura planaren barruan eman zuten taula zaharberritzeko dirulaguntza, Millanen arabera. Beste zenbait kulturgileri bezala, zaharberritzaileei ere bultzada emateko jarri zuten martxan programa hori, kulturak jasandako kalteak arintzeaz gain. Programa horren barruan egitasmo asko lagundu dituzte, baina Mendaro Marinelaren taula flandiarren zaharberritzea "aipagarriena" dela



uste du Millanek. Zumaiako obrari esker, gainera, XV. mendeko historiaz ikasteko aukera izan dutela azaldu zuen diputatuak. Izan ere, margo flandiarren inguruan nazioarteko bilkura egiteko aukera izan dute, eta ekitaldian iragarri zuenaren arabera, bilkurako irakaspenekin publikazio bat argitaratuko dute aurki.

Halako zaharberritze prozesuetarako aldundiaren eta Gordailuaren prestutasuna nabarmendu zituen, bestalde, Marina Bidasoro zinegotziak. Hark uste du "ezinbestekoa" dela instituzioen elkarlana ondarea berreskuratzeko, eta ateak zabaltzeko zizkien etorkizunean suerta daitezkeen elkarlanei. Parrokiaren bueltan zumaiarrek izandako "bizipen ederrak" ere aipatu zituen Bidasorok, baita "barruan ezkutatzen dituen altxorrak" ere. Horiek guztiak bisitatzera gonbidatu zituen herritarrek.

Laskurainek hitzartzea baliatu zuen jakinarazteko parrokia bisitatzeko ordutegia zabalduko dutela, "boluntarioen lanari esker". Haren hitzetan, "tristura" ematen dio bisitariei San Pedro parrokia itxita dagoela esateak. QR kode bati esker, gainera, bisita gidatua egin ahal izango da aurrerantzean. ■



Goian, aurkezpen ekitaldiko irudia.

Behean, taula flandiarra, zaharberrituta.



ASESORIA ARIN

- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laborala
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 behea ▪ ZESTOA

Tel./Fax-a: 943-89 70 99 ▪ asesoriarin@asesoriarin.com

Bizitza harrapatzen kameraren bidez

Iñaki Urreizti, kameralaria

Herri txikiak eta infernu handiak bisitatu ditu, oholtzara ere behin baino gehiagotan igo da, eta urte bukaerako kanpaikadak ere banan-banan bizi izan ditu. Kamera eskuan, sorbalda gainean, edo tripodeaz lagunduta jaso ditu ekintza, jaialdi edota ekitaldi horiek guztiak Iñaki Urreiztik.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Telebistarako lan egiten du, baina etxean duen telebista aparailua piztu ere ez duela egiten esan du Iñaki Urreizti Aizpurua (Zumaia, 1988). Grabatutako saioak ere nekez ikusten dituela onartu du, akaso akatsen bat egin duen jakiteko, edo irudiak hartzeko orduan izandako sentsazioen bat uxatzeko asmoz bakarrik. Hori hala izanda ere, ezagutzen dutenek zalantzarik ez dute: irudiez elikatzen da. Ohikoa da sakelakoari begira aurkitzea, sareren batean partekatutako bideoari edo argazkiei adi-adi begira, askotan, barreari ezin eutsirik.

"Beti gustatu izan zait ikus-entzunezkoen mundua; atentzioa beti eman izan dit, baina ikasteko orduan beti pentsatu izan nuen irteera profesionalik ez zuela", esan du denborarekin kameralari bihurtuko zenak, kafe kikara txikia eskuan duela. Zer ikasketa egin zituen galdetuta, irribarre batekin kontatu du autoen elektromekanikaren inguruko modulu bat ikasi zuela, baina gero arlo horretan lanik ez duela egin. "Argazkigintza betidanik gustatu izan zait, eta neure kabuz hasi nintzen ikasten. Tarteka arlo horretan lan bat edo beste egokitu zitzaidan. Gero, Andoaingo Zine eta Bideo Eskolan hasi

nintzen ikasten; hilabete inguruko ikastaroak ziren, eta praktikak ere eskaintzen zituzten. Ondoren, enpresa batean hasi nintzen lanean; hasiera hartan egun solteetarako-eta eskaintzen zizkidaten beste lan batzuk ere egiten nituen, baina azken urteotan enpresa berean nabil lanean", esan du.


Ekoiztetxe batean egiten du lan Urreiztik, Andoainen. Produkzio lan teknikoak egiten dituztela azaldu du kameralariak. "Kamerak, argiak eta soinuak jasotzeko ekipamenduarekin egiten dugu lan. Baina edukiaz ez gara arduratzen; lana enkargatzen digun beste ekoizpen etxe batek prestatzen du edukia; beraiek egiten dituzte gidoiak eta kontratatzen dituzte aktoreak edo aurkezleak. Guk arlo teknikoa lantzen dugu", azaldu du.

Zazpi urte daramatza jarraian lanean ekoiztetxe horretan. Berez, kameralari lanak egiten ditu Urreiztik, baina, aparte, beste lan batzuk egiten dituela ere kontatu du: "Garabi txikiak ere operatzen ditut. Azken finean, *jostailu* asko izaten ditugu eskura, eta azkenean, denetik pixka bat egin behar izaten dugu".

Zer saio edo produktu grabatu dituen galdetuta, luze pentsatu behar izan du, ez lan gutxi egin duelako; justu kontrakoagatik, zerrenda



irrimarra



amaiezina delako. "Denetik grabatu dut: dokumentaletarako irudiak, mezak, kirolak, elkarrizketak, publizitateko bideoak, udako programa bereziak, telesailak, kontzertuak... *Oholtzan* ere guk egiten dugu, aspaldi *Vaya* *semanitarako* zerbait egin genuen, *Golazenerako* ere bai, *Itxi liburua* saioa... Gauza pila bat". Gustukoena argiarekin eta irudiekin "mimo pixka bat" eskatzen duten erreportajeak egitea du. Gustuko zer ez duen galdetuta, futbola hitza ateratzen zaio, kirol bezala, baina bereziki futbol partidak eman behar izatea. "Normalean gauza txikiak egiten ditugu; kamera batekin eta argi gutxi batzuekin joaten gara. Baina futbol partida bat emateko unitate mugikorra eraman behar dugu, hamabi bat kamerarekin. Hor kableak bota behar dira, material pila bat deskargatu behar duzu; eguraldi onarekin, txarrarekin, izan eguzkitan edo euripean; galbana handiena horrexek sortzen dit". Solaresera (Kantabria, Espainia) Errege Kopako partida bat ematera joan zirenekoa du gogoan. "Euri zaparradak izan genituen egun osoan. Gainera, bigarren B mailako talde baten futbol zelaia zen, eta ez zegoen kamerak jartzeko prestatuta; partida osoa jasogailu batera igota pasatu nuen, atearen atzean, euruan. Eta gero, bukaeran, dena jaso behar izan genuen, baita biltegian ere: deskargatu, bustita zeuden aparatuak lehortzen utzi... Lan handia izan zen".

Halakoetan 12-13 ordu lan egin ditzaketela kontatu du. "Ordutegi arraroa izaten dugu. Dagoeneko ohitu naiz, baina hori da zailena. Egun batzuetan, erreportaje txiki bat egin behar duzunean, edo informatibo baterako pieza bat, lau ordu lan egin eta etxera buelta zaitezke; beste egun batean, berriz, hamahiru ordu egiten dituzu, eta asteburuetan ere lan egin behar izaten dugu sarritan".

Enkarguen eta beharraren arabera, kamera modu desberdinean erabiltzen du. "Batzuetan sorbalda gainean eraman behar duzu, eta beste batzuetan tripodea behar duzu. Badaude irudia asko zaindu behar duzun uneak, saio berezi batzuetarako, edo, esaterako, Guggenheimek eskatutako bideo batzuetarako. Beste batzuetan, aldiz, pilota partida batean edo meza batean, ez da hain beharrezkoa izaten".

Pandemiak bere lanean ez du hainbesteko eraginik izan. "Lehen hiru hilabeteetan, leku guztietan bezala, ez zen ezer egon, eta gero, Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientearekin egon ginen lanaldi erdira. Konfinamenduaren ondorengo lehen lana Izarok Victoria Eugeniako teilatuan eman zuen kontzertua grabatzea izan zen. Gero, *Udak dakarrena* saioarekin ibili ginen. Aurreko urteetan, udan, batetik bestera ibiltzen ginen; pandemiarekin, berriz, set bat jarri genuen herri batean, eta asteak pasatu genituen bertan. Mugitzen ginen, baina gutxiago, eta lana erosoagoa izan zen. Orain pixka bat beldurtuta gaude udarari begira, ekitaldi pila bat izango

Iñaki Urreizti Aizpurua

- Adina: 34 urte.
- Lanbidea: kameralaria.
- Kameralaria ez banintz... Ez dakit, baina pentsatu izan dut ez nuela neure burua ikusten tailer edo bulego batean. Mugitzea eskatzen duen zerbait izan beharko luke.
- Lanetik ateratzean gogoko dut...Txakurra paseatzea, edo motoan ibilbide luze samarra egitea.

da-eta: kontzertu pila bat, festa pila bat... Bi urte egon gara festarik gabe, eta orain dena etorriko da batera".

Jakitun da ikus-entzunezkoen munduak bilakaera nabarmena izan duela azken hamarkadetan. Telebista kate apur batzuetatik mila eta bat plataforma, webgune, telebista kate edo sare sozialetara pasatu gara urte gutxi batzuetan. "Gero eta ikus-entzunezko eduki gehiago egiten da. Guri berdin digu norako den; izan daiteke telebistarako, Internetarako, edo edozer plataformatarako. Guri inporta zaiguna da edukia izatea". Ikus-entzunezkoetan izandako iraultza horrek ez du asko kezkatzen Urreizti; bere ustetan, lan faltarik ez dute izango, nahiz eta gaur egun denen eskura dagoen teknologiarekin edonork munta dezakeen bideo bat bere egongelan. "Nik uste lana egongo dela, baina beste era batekoa izango da. Internetarako eduki asko egongo da. Adibidez, enpresa askok promoziorako bideoak eskatzen dituzte; edozein enpresa txikik, dendeke ere bai, profesionaltasunarekin egindako bideoak enkargatzen dituzte. Gauza bat da edozein

you tuber kamera aurrean babokeriak esaten aritzea, baina enpresa batentzat bada, bere jarduera publizitatzeko bada, zerbait hobea eskatzen dute".

Telebistako atzealdea, tramoia, ezagutzeko parada izan du Urreizti; pasadizo ugariaren lekuko izan da, eta pantailaren bidez ezagunak egiten zaizkigun hainbat pertsona ere ezagutu ditu. Denetik dagoela dio, "jende oso jatorra ere bai. Gu era guztietako jendearekin harremantzen gara. Egun batean, goizean, Guggenheimen zaude New Yorketik etorritako artista bat elkarriketatzen, eta arratsaldean baserritar batekin zaude. Hori polita da, era guztietako jendea ezagutzen duzulako, baita giro desberdinak eta leku asko ere. Leku guztietan bezala, denetik ezagutzen duzu".

Argazkigintzan hasi zen kameralari izan aurretik, baina ia denborarik ez diola eskaintzen aitortu du. Eta ikus-entzunezkoei? Proiektu propiorik ba ote du esku artean? "Interesa bai, baina denbora gutxi. Hori bai, gauzak proposatu dizkidatenean, eta proposamena gustatu zaidanean, parte hartu izan dut". ■



Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkatututa aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali ekainaren 24a baino lehen.

Saria: TIPITakin bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Maiatzeko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkatututa zegoen asmatu behar zen: 22. orrialdean zegoen ezkatututa, eta **Aloña Otaegi** bazkidea izan da irabazlea.





IZAN IRAKUR ZALE!

EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU

bazkide@ukl.eus • 943-81 38 41

BALEIKE

LAGUNTZAILEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Nola kudeatu gurasoen arteko banaketa



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Gaur egun gure gizartean gero eta ohikoagoa da haur baten gurasoek amaitutzat ematea bikote bezala duten erlazioa. Hori familia baten bizitzan eta, zehazki, haur baten bizitzan, aldaketa nabaria da, baina modu ezberdin askotan kudea daiteke, eta ez du zertan, epe luzera, mingarria izan.

Lehenik eta behin, hausnartu behar da heldu bezala prozesua nola bizi den. Helduarentzat esperientzia oso traumatikoa bada, haurrari hori transmitituko zaio, noski; aldiz, lantzen baldin bada eta pauso onuragarri bezala ikusten bada, haurrari ere eredu hori eskainiko zaio. Kontuan izan gurasoen banaketan ez dela familia hausten, baizik eta berrantolatu egiten dela.

Kasu gehienetan, arazoak edo gorabeherak, berez, banaketa baino lehen hasten dira. Beraz, banaketa ez da arazoa izaten, erlazioa baizik. Sufrimendua ekiditeko gako nagusia seme-alabak bikote arazoetatik kanpo uztea izaten da, nahiz eta hori askotan oso zaila izan, eta arreta handia eskaini horri.

Albisteak bi gurasoek elkarrekin ematearen garrantzia azpimarratu behar da, une berean. Ez da gomendagarria albisteak gauez ematea, eskolara joan bezperan, gaua traketsa izango baitute. Bila dezagun horretarako momentu bat; adibidez, larunbat goiz bat, gero denbora izan dezaten informazio hori integratzeko eta horren inguruan galderak eta kezak azaltzeko.

Ume askorentzat lehen esperientzia da zeinetan ohartzen diren bi pertsonak maitatzeari utz diezaioketela, eta horrek beldurra eragiten die: "Ni maitatzeari ere utziko ote diote?", ohikoa da galdera hori sortzea haurrarenengan. Adierazi behar zaie ezberdina dela bikote baten artean dagoen maitasuna eta gurasoek seme-alabekiko duten maitasuna; kasu horretan, amaigabea.

Gurasoetako batekin ondo daudenean, bestearekiko desleial sentitzen dira, eta alderantziz. Emozionalki estresa sortzen die horrek, eta hori gairatzeko ezinbestekoa dute gurasoen laguntza: argi utzi behar zaie libre direla bi

gurasoekin ondo sentitzeko, horrela bada.

Nola sentitzen da haurra

- Beldurra, tristura, haserre, segurtasun falta, errua...
- Hasieran normalak dira, baina asko luzatzen badira, kontuan hartu. Kezkagarriagoa litzateke haurraren inolako emoziorik sortuko ez balitz.
- Gurasoen arteko arazoak nabariak direnean hurrek gehiago sufritzen dute.
- Dibortzioa uka dezakete eta gurasoak elkarrengana bueltatzeko fantasia izan.
- Beti nabarmendu behar dugu banaketa helduen ardura dela.
- Umeari segurtasuna eta lasaitasuna emango dion azalpen bat adostu behar da eta informazio guztia transmititu: non biziko diren, nork jasoko dituen eskolatik, zein egunetan egongo diren gurasoetako bakoitzarekin...
- Garbi azaldu nolakoa izango den beraien egunerokotasuna.
- Gogoratu kasu hauetan ez dagoela ez galtzailerik ez irabazlerik. Galtzaile bat dagoen momentuan, seme-alabak ere galtzaile bihurtzen dira. ■



Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com





Hona hemen gure bi laguntxo: ZURIKO zakurra eta XAPI katua. Bete itzazu sudokuen hutsuneak, bi izenak osatzen dituzten hizkiez (seikoan Z, U, R, I, K eta O, eta laukoan X, A, P eta I). Gogoratu hizkiek behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Zeeer?! Bide batez, ezaba itzazu WAV, YNQ eta JUF guztiak eta zakur-katuok zer esaten ari diren ulertuko duzu.

Handitik txikiRa

Ordена itzazu inurri eta madalena hauek, handienetik txikienera, 1etik 7rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikienerari 7).





Itzala


Erreka harririk harri igaro nahi duen turista honek zein du itzal zuzena?

Hamahiru



DOMINOAN

Garaian garaikoa. Domino hau ekainean azoketan ikusiko ditugun sei gaiez egina dago. Honokoak dira: ziazerba edo espinaka, angurria, marrubia, gerezia, brokolia eta piperra. Marraztu hutsunetan falta diren irudiak, domino zati honek zentzua izan dezan.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Encarna Sanchez Torralba

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Villanueva de la Veran (Caceres, Espainia) jaio nintzen 1961ean. Euskal Herrira etorri ginen, eta Zestoan bizi izan ginen ezkondu eta Zumaiara etorri nintzen arte. 1983an etorri nintzen hona. Lehen aldia zen beste herri batera bizitzera joaten nintzela. Herritarrek oso ondo hartu ninduten, eta oso erraza egin zitzaidan Zumaiara ohitzea. Dena nuen gustukoa: herria, paseoak, bizilagunak.

Txikia nintzela ezagutu nuen sanpedroetako danborrada. Gurasoek ahizpa eta biok ekartzen gintuzten Zumaiara, San Pedro jaietara. Arropa estreinatzen nuen, eta festak izugarriak ziren. Nik orduan ez nituen santelmoak ezagutzen, eta festa hauek, sanpedroak, zoragarriak iruditzen zitzaizkidan. Poza, emozioa sentitzen nuen; maite nituen festa hauek. Sanpedroak eta santelmoak, biak maite ditut. Santelmoetan bandera igotzen dutenean oilo-ipurdia jartzen zait. Denborarekin atzeman dut San Pedro jaiak atzean geratu direla, eta horrek pena handia ematen dit. Nik gorenean ezagutu nituen, eta galtzen ari direla ikusteak pena ematen dit. Zergatik gertatu da hori? Zergatik galdu dira? Alkateari, zinegotzi guztiei eskatuko nieke gauzak hobeto banatzeko. Santelmoak oso ondo joan dira, baina zertxobait emaezue sanpedroei ere.

Santelmoetako danborradak festa horiei eskaintzen dien gauza bera ematen die gure danborradak sanpedroei. Guk zailtasun bat dugu, ordea: santelmoetakoa beti egiten da asteburuan, zorte hori dute; sanpedroetakoa, berriz, beti da San Pedro egunaren bezperan, eta asteko eguna aldatu egiten da. Asteburuan tokatzen denean, publikoa ziurtatuta dugu; bestela, ez hainbeste. Horregatik, jendeari kalera ateratzeko eskatzen diogu.

Sanpedroetako Danborrada elkarteko presidente bihurtu nintzenean, 2018. urtean, elkarte gastronomikoek danborradan parte har zezaten saiatu nintzen, beste herri batzuetan egiten den bezala: Zestoan, Zarautzen... Bada, elkarte bakarrak hartu zuen parte. Jendea danborrada honetan parte hartzera animatu nahiko nuke. Esaten dute jende zaharraren danborrada dela: barkatu, baina ez. Gure danborradako jendeak santelmoetakoan parte hartzen duen bezala, zergatik ez dute haiek gurean parte hartzen? Oso ondo pasatzen dugu! Bizitzen duzun arte ezin duzu kontatu.

Neuk barrila jo izan dut beti; barrilarekin hasi nintzen, eta hala jarraitzen dut: danborraren soinua baino gehiago gustatzen zait. Barrilek soinu goxoagoa dute, politagoa, asko gustatzen zait. Baserritarrez atera ginen azken urtean hasi nintzen danborradan, eta hurrengo urtean gaur egungo uniformearekin atera ginen. Lehenengo urtean sekulako lotsa pasatu nuen; ez nuen nahi gurasoek ni ikusterik, pentsatzen nuen akatsen bat egingo nuela, eta ez nuen nahi ni izan nintzela ikusterik! Gero, bigarren urtetik aurrera, dena ondo joan zen.

Elkartearen 25. urteurrena bete behar genuen 2020. urtean, baina ezin izan genuen ezer egin. Ospatu gabe geratu ginen. Izan ere, bi urte daramatzagu atera gabe pandemiagatik. Aurten bai, keinu bat egin behar diogu elkarteari, baina ez dugu gauza berezi gehiagorik antolatu, asteartea tokatzen da eta. Berririo jotzeko gogoz gaude, baina beldur ere bagara, ea hegoak zertxobait moztuko dizkiguten.

Jendea faltatzen hasi zaigu danborradan. Tamalez, batzuk gaixotu egin dira, eta jendea hil ere egin da. Gazteak eta edadetuak hil dira, eta pena da, baina ordezkorik ez dugu izan. Zer gertatuko da probatzeagatik? Zer gertatuko da guk uzten dugunean? Dena galduko dela. Horrek ez al dio jendeari pena ematen? ■■■



"Odola ezin da fabrikatu"

TESTUA ETA ARGAZKIA:

JUAN LUIS ROMATET ETA MARIA MAYA
MANTEROLA

Iratxe Aizpuruak, Itxaso Martinek eta Sabin Urzelaik badakite zeinen garrantzitsua den odola ematea, edo bestela esanda, zeinen ondorio lazgarriak izango lituzkeen odol bankuak hutsik geratzeak. Pandemiak odol-ateratzeen kopuruan izandako eraginaz eta odolaren beharraz aritu dira, besteak beste.

"Ospitalera joan eta odola sartuko digutela espero badugu, lehenago norbaitek eman duen seinale", azpimarratu du Sabin Urzelai Gipuzkoako Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa Fundazioko arduradunak. Adituak emandako datuen arabera, lau pertsonatik hiruk beharko dute beren bizitzan zehar odola, eta beharra izateaz gain, uste dute eskubidea ere badela. Beraz, "norbererekoikeriagatik bada ere", odola eman beharko litzatekeela uste du Urzelaik. Haren hitzetan, jende asko dago hilabeteen behin edo bi hilean behin odol transfusioa behar duena bere bizimoduarekin jarraitzeko, "gero eta gehiago".

"Gugatik edo gure inguruagatik egin behar genuke. Pentsatzen hasten bagara, denok dugu hurbilekoren bat odola behar duena. Esaterako, ebakuntza bat egin diotelako, gaixotasun



Iratxe Aizpuru, Sabin Urzelai eta Itxaso Martin.

arraro baten ondorioz immunoglobulina behar badu... Astebete egon beharko bagenu odolik gabe, jende asko hilko litzateke. Leuzemia dutenak, erradioterapia edo kimioterapia jasotzen dutenak...", azaldu du Urzelaik.

Lehen istripuetan eta ebakuntzetan erabiltzen zen batez ere odola; orain, berriz, botikak sortzeko erabiltzen da: "Ebakuntzak gero eta hobeto egiten dira, eta batzuetan ez dute odol poltsa bat bera ere erabiltzen. Emandakoan, hurrengo egunean globulu gorriak, plaketak eta plasma banantzen ditugu. Globulu gorriak odola behar

dutenentzat dira, plaketak kimioterapia eta erradioterapia kasuetarako, eta plasma, batik bat, sendagaiak sortzeko".

Urzeilaren arabera, immunoglobulina gaixotasun askoren aurkako tratamendua da, eta beste askorena izan daitekeela uste da. Odol sintetikoa sortzeko saiakerak egin dira, baina lorpenik ez dutela izan ere azaldu du Urzelaik. "Hamarkadak daramatzate saiakera horiekin, eta oraingoz ez dute ezer lortu. Odola ezin da fabrikatu".

COVID-19aren eraginez odol emailen kopurua jaitsi egin da, baina igo immunoglobulina behar duten pazienteena.

Urzelairen arabera, "alaitasuna" oinarritzko osagaia da odola emateko.

"Eskuzabalagoak gara alai gaudenean. Pandemiak nekatu egin gaitu. Hasieran askok ematen zuten, sentitzen zutelako odola emanda *bitxoaren* kontra zerbait egiten ari zirela", esan du.

Pandemiaren eraginez, aurrez hitzordua eskatzea ezinbestekoa da odola ateratzeko, eta horrek emailaeei zein ateratzean laguntzen aritzen diren boluntarioei onurak ekarri dizkiela uste du Itxaso Martin boluntarioak: "Denbora gutxiago galtzen dute; etorri eta zuzenean sartzen dira. Nik esango nuke jende gehiago sartzea dagoela saio bakoitzean. Hogei minutuan behin zazpi lagun sartzen ditugu, eta oso arin doa dena". Urzelai ados dago Martinen adierazpenekin, eta espero du saio bakoitza optimizatzeko balioko duela.

Galdera gehiago

Bestalde, duela urte batzuetako odol ateratzeen aldean, konplikatuagoak dira oraingoak, Urzelairen esanetan: "Gero eta galdera gehiago egin behar ditugu. Orain, tximino baztanga ere hartu beharko dugu kontuan. Ea Madrilen egon den emaila, harreman sexualak norekin eta noiz izan dituen... Konpliketzen ari da". Emandako datuen arabera,

gazteek "arazorik gabe" ematen dute odola. Adina igo ahala jaisten da kopurua. Zumaian, esaterako, 33 eta 37 urte arteko emakumezkoetan jaisten da, Martinen arabera; amatasunagatik izan daitekeela uste du. Badaude beste baldintza batzuk ere, hala nola, kirola: "Nekatzen bazara, deshidratatu egiten zara, nolabait. Gero odola ematen baduzu, likido gutxiago daukazu gorputzean, eta, beraz, errazago zorabiatuko zara. Eta berdin odola eman ondoren kirola egin nahi baduzu", azaldu du Urzelaik. Aizpuruak dio sendagileek botatzen dutela batzuetan jendea atzera; azken ateraldian 79 lagunetik 64k eman ahal izan zuten.

Daturik okerrenak uztailean izaten dituzte, eta horregatik

dei berezia egin dute odol emailaen elkartetik hilabete horretan egingo den ateratzean parte hartzeko. "Guk urte batzuk daramatzagu hemen, eta aspaldi ohartu ginen uztaila hilabete txarrenetarikoa izaten dela. Maiatza eta iraila, berriz, onenetakoak", kontatu du Martinek.

Odola ematea erraza, segurua, beharrezkoa eta atsegingarria da, Urzelairen arabera: "Hondartzan itotzen ari den haur bat salbatzen baduzu, bizi guztian gogoratuko zara; baina odola ematen dugunean, ez gara jabetzen zenbat bizitza salbatzen ditugun".

Uztailaren 13an aterako dute odola Hogarrean. Odola eman nahi dutenek aurrez apuntatu beharko dute 609 81 27 06 telefono zenbakira deituta. ■



Lar ZALDIK

Kanpaldiak uztailean eta abuztuan

Astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00 artean
8-16 urte bitarteko gaztetxoentzat

Izen-ematea:

ekainaren 20a baino lehen

Udalekuak ekainaren 20tik
irailaren 2ra arteko asteetan



Lartzandieta Baserria · Urdaiaga auzoa, 44 (Usurbil) · 666 60 74 47 · info@larzaldiak.com

PUBLIZITATEA

EGOKI
ERLOJU



*Erlorju
eta bitxi denda*

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

ekin
elektrikistaketa, L.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaiá tel. 943-14 30 97
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



**ERNTIO
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

Entz
Informatika

ORDENAGAILUAK • MUGIKORRAK •
KONPONKETAK

Behoko plaza 943-14 33 95

Garoa

Carlos Cifre - Ainhoa Olaizola

tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zumbilo kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure-Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiá
Tel.: 943-86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

**INPERNUPE
ELKARTEA**



Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Iriñdo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaiá. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orotarako solnu
eta argiztapen alokairua
Hots eta Irudigintza aretoa
tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60

**ORRAZTEGI
ZUMAIÁ**



943-86 20 83

JUARISTI
jaketxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

KABI
TABERNA




Patxela Elvezarreta, 15
943-11 74 27



Nolakoa izango da Zumaian 2050ean?

Gure herria 25-30 urte barru nola irudikatzen duten galdetu diete 14-15 urteko nerabeek beren gurasoei, Kazetaritza Eskolan egitasmoaren barruan. Orrialde hauetan jasotako inkesta da lan horren emaitzetako bat. Testua eta argazkiak: **Gorka Zabaleta**.





Nolako bizimodua izango dugu gaur 14-15 urte dauzkagun zumaiarrok gure gurasoen adinera iristen garenean, 25-30 urte barru? Zertan egingo dugu lan? Nolako energia kontsumituko dugu herrian? Nola mugituko gara batera eta bestera? Klima aldaketak zer kalte eragingo ditu? Euskaraz bizi den herria izango al da? Gaur baino hobeto edo okerrago biziko gara zumaiarrak? Nolako mundua utzi diguzue?". Horrelako galderak erantzun dituzte herriko 100dik gora neraberen gurasoek, Zumaiaiko Herri Eskolak, Zumaiaenak, Baleikek (UKT) eta Zumaiaiko Udalak aurtan lehen aldiz martxan jarri duten kazetaritza programan.

Kazetaritzaren metodologiak ikastearekin batera (elkarrizketak egiten ikasi dute), gizarte modura mahai gainean dauzkagun galdera, kezka eta erronka nagusien gaineko gogoeta bultzatzea izan da egitasmo berri honen helburua. Zumaiaenako eta Zumaiaiko Herri Eskolako DBH3ko ikasleek (14-15 urte) eta haien gurasoek hartu dute parte, inkesta orokor baten eta nerabeei gurasoei egindako banako elkarrizketen bitartez. Herriari ekarpena egiteko asmorekin egindako ariketa kolektibo bat ere bada: bi belaunaldiren arteko interakzioa, oraingo eta etorkizuneko kezkak eta erronkak azaleratzeko intentzioarekin.

Banakako elkarrizketak egiteaz gain, etorkizuneko erronken gaineko galdetegi bat erantzun dute gurasoek. Ez dira nolanahiko gaiak eta gogoeta eskatzen dute. Alde horretatik, eskertzekoa da egin duten ahalegina, eta eskertzekoa emaitza, etorkizunaren erradiografia nahikoa zorrotza egin baitute. Biztanleriaren bilakaeraz, ekonomiaz, jasangarritasunaz, klima aldaketaz eta herri izaeraz galdetu zaie eta, oro har, badago ikuspegi kritiko bat. Esate baterako, ia %60ak uste dute gure bizimodua aldatu behar dugula hurrengo belaunaldiek duintasunez bizitzeko aukera izan dezaten. Badago, beraz, norabide okerretik goazenaren sentsazioa. Galdera guztietan hiru aukera eman zaizkie eta, zenbait kasutan, adostasun handia ikusten da. Esaterako, %71k herriko merkataritzaren gainbehera aurreikusten dute, herrian denda gutxiago egongo direla, ia dena Internet bidez erosiko dugulako. Energia kontsumoari dagokionez, gehienek (%64) uste dute energia berriztagarriak erabiliko ditugula, baina gure kontsumo maila ez dela jaitsiko. Klima aldaketaz galdetuta, ia denek (%96) uste dute ondorioak igerriko ditugula, eta %40aren iritziz ondorio larriak izango dira. Itsasoaren mailaren igoerak eragiten du kezka gehien eta, irtenbide gisa, errioiari pixkanaka espazio gehiago ematea proposatzen dute gehienek (%64). Gizarteari dagokionez, desorekak eta ezberdintasunak handitzeko arriskua ikusten dute %47k. Azkenik, zumaiarrak 2050ean gaur egun baino hobeto edo okerrago biziko diren galdetuta, gehienek uste dute okerrago (%43) edo berdin (%29) biziko direla. %27k baino ez du erantzun hobeto biziko direla. Zer pentsatu ematen du. ■■■

HERRIARI EKARPENA EGITEKO ASMOAREKIN EGINDAKO ARIKETA KOLEKTIBOA ERE BADA

ETORKIZUNeko ERRONKEN GAIKOKO GALDETEGI BAT ERANTZUN DUTE GURASOEK

GIZONEZKOAK

KAE I LIGA

Arraunlaria	Adina	Urteak klubean	Jaioterria
Jon Aizpuru	18	1	Errezil
Unax Aizpuru	17	2	Errezil
Aritz Alberdi	25	9	Azkoitia
Xabier Altzibar	28	14	Zumaia
Iñaki Aristi	27	4	Zumaia
Joseba Aristi	32	17	Zumaia
Aitor Aristi	23	12	Zumaia
Endika Arregi	22	5	Azpeitia
Mikel Arrizabalaga	23	1	Itziar
Odei Arrizabalaga	33	9	Itziar
Markel Beristain	17	2	Lastur
Imanol Etxaniz	21	9	Azpeitia
Iñaki Etxeberria	20	1	Azpeitia
Mikel Ezama	16	1	Azpeitia
Ibon Goenaga	22	9	Azpeitia
Ander Iriondo	23	11	Zumaia
Enaitz Iruretagoiena	16	1	Zumaia
Jakes Larrañaga	17	1	Azkoitia
Eñaut Larrañaga	26	11	Azkoitia
Jon Santizo	17	2	Azkoitia
Peru Tolosa	25	-	Zumaia
Eneko Unanue	25	-	Zumaia
Manex Unanue	19	-	Azkoitia
Urko Unanue	18	2	Azkoitia

Entrenatzailea

Odei Arrizabalaga

AUPA TELMO DEUN!

EMAKUMEZKOAK

ETE LIGA

Arraunlaria	Adina	Urteak klubean	Jaioterria
Helena Albizu	51	3	Zumaia
Laia Aranbarri	17	1	Azkoitia
Ainhoa Badaia	19	1	Astrabudua
Olatz Bereziartua	22	9	Zestoa
Jule Egiguren	22	11	Zumaia
Oihana Erkizia	43	1	Zumaia
Nahikari Galarraga	17	1	Errezil
Mirian Garagartza	17	1	Azpeitia
Miren Terese Garrastazu	43	1	Getaria
Sara Goikoetxea	21	2	-
Argia Ibar	17	1	Getaria
Maddi Iriarte	22	1	-
Mirari Iturbe	17	2	Azkoitia
Amane Jimenez	17	2	Azpeitia
Iraide Manterola	22	3	Zumaia
Nahikari Osa	17	2	Zumaia
Ainhoa Segurola	17	1	Azpeitia
Maite Silveti	18	3	Zumaia

Entrenatzailea

Jose Enrike Manterola

AUPA TELMO DEUN!

BABESLEAK



ESTROPADEN EGUTEGIA

EKAINA

Eguna	Estropada
19	San Pedro Hernani
25	Donibane Lohizune Ziburua
26	Zumaiaiko Ikurrina

Herria	Lehiaketa
San Pedro	KAE1
Hernani	ETE
Donibane Lohizune	ETE/KAE1
Zumaia	ETE/KAE1

UZTAILA

Eguna	Estropada
2	Mutrikuko Bandera
	Castro Urdiales Bandera
3	Busturialdea
	Donostiarra Bandera
9	Portugalete
	San Juan
10	Portugalete
16	Pedreñako Bandera
17	Orioiko Bandera
23	Illunbe
	Errenteriako Ikurrina
30	Camargoko Bandera
	Astilleroko Bandera

Herria	Lehiaketa
Mutriku	KAE1
Castro Urdiales	ETE/KAE1
Blantzobe	KAE1
Donostia	KAE1
Portugalete	ETE/KAE1
San Juan	KAE1
Portugalete	ETE/KAE1
Pedreña	ETE/KAE1
Orio	KAE1
Trintxerpe	KAE1
Orereta	ETE
Camargo	ETE/KAE1
Astillero	KAE1

ABUZTUA

Eguna	Estropada
6	Ondarroako Bandera
7	Hondarribiko Bandera
	Errenteriako Ikurrina
13	Plentziako Ikurrina
	Castro Urdiales Bandera
15	Castro Urdiales Bandera
20	Zarauzko Ikurrina
	Santoñako Bandera
21	Bilbooko Ikurrina
	Ane Aizpurua Oroimenekoa
27	Collindres
	Play off I
28	Play off II
	Erandioko bandera

Herria	Lehiaketa
Ondarroa	ETE/KAE1
Hondarribia	ETE/KAE1
Orereta	KAE1
Plentzia	KAE1
Castro Urdiales	ETE/KAE1
Castro Urdiales	KAE1
Zarauz	ETE/KAE1
Santoña	KAE1
Bilbo	KAE1
Bilbo	ETE
Collindres	KAE1
Bermeo	KAE1
Portugalete	KAE1
Erandio	ETE

IRAILA - KONTXAKO BANDERA

Eguna	Estropada
1	Sailkapena
4	1. jardunaldia
11	2. jardunaldia

Herria	Lehiaketa
Donostia	TKE/Euskotren
Donostia	TKE/Euskotren
Donostia	TKE/Euskotren

AUPA TELMO DEUNI!



Geltokirako begirada etena



IMANOL AZKUE IBARBIA

Zumaian baditugu museoak, baina urruti edo ezkutuan geratzen zaizkit gehienak, eta barrutik ezagutu baditut ere, apenas akordatzen naizen horietan ikusitakoez, barneko edukiez; horiek baino gehiago estimatzen ditut kalean dauzkagun instalazio eta artelanak, eta ez dira gutxi, gainera. Horietatik, asko gure egunerokoan erabat integratu zaizkigu, hain ohiko bihurtu, albotik pasatzean ia ikusi ere ez ditugu egiten; akordatu ere, gehienetan ez gara akordatzen zer diren edo zertarako dauden ere, eta, batzuetan, gurekin batera hondatu dira eta galdu dute jarritakoan zeukaten indarra eta esanahia.


Kalean dauzkagun artelanetatik, *kariño* berezia diot Paolaldeko barran dagoen



multzo eskultorikoari, oso sugerentea iruditzen zaidalako: "Geltoki bat, bi aulki eta mila istorio asma ditzake tristurak", Jabier Elorriagarena (Galdakao, 1959). Bereziki gustatzen zait elementu txiki eta sinple batzuk elkarrekin erlazionatuta oso egitura indartsua osatzen dutelako, material ukigarriaren mugak gaindituta, eta Joseba Sarrionandiaren *Estazioko begiradak* ipuin ezagunaren aipuaren izenburupean, gonbidapena da geratzeko, esertzeko, begiratzeko eta istorioak asmatzeko. Begirada... Zer gauza inportantea... Pixkanaka, ikasi dut gauzak oso ikuspegi desberdinetatik begira daitezkeela, eta nondik eta nola begiratuta, begi berberak ere desberdin ikusten dutela.

Bere garaian (1999an), Ismael Manterolak eskulturaren gaineko oso azalpen egokiak eman zituen: "Elorriagak ere memoriara jo du eta poesiara. Sarrionandia idazleak *Narrazioak* liburuan aipatutako zatia abiapuntutzat hartuta, ibilbide luzea proiektatzen du espazioan eta denboran: Urolako trenbidearen oroimena (garai bateko itsas portuaren bultzatzaile ekonomikoa izan zena), eta itsas muturreko hiru gelditupeko paseoa. Lehendabiziko gelditupea atsedenekua da, okertutako itsaso horizontalaren aurrean, espazioaren logika desagerrarazten duena.

Bigarrena eskulturaren unea da, esperimentazioarena, begiekin baina, batez ere, ukimenarekin ezagutu behar duguna. Hirugarrenean, atsedean hartuko dugu berriz, estazioa daukagu zain, bi aulki, bakardadean egindako bidaiaren bukaera beste norbait topa bagenezake ere. Bukaera arraroa, itsasmuturraren norabidearen kontrakoa. Aulkitan eserita Zumaia daukagu aurrez aurre, nondik gatozen esaten digu eta nora goazen ere, bidaiak bueltako bidea hartzeko aukera bakarra du, ez badugu bidaiaren arriskutsuagoan murgildu nahi, behintzat¹. Ismaelek dioen bezala, hiru gune nagusi ziren jarri zutenean, baina ordutik osagaiak hondatzen eta higatzen joan dira: lehen gelditupea, paretan sartutako itsasoaren irudirik ez dago, eta aurrealdean zegoen jarlekua ere falta da, ibaiertzean; barra zaharra amaitzen zen lekuan, berriz, han dago bihotz formako mutiloi zuria, gogoa eta nahia lotzeko ezin egokiagoa; eta hirugarren gunea ere han dago, barraren amaierako balizararen azpialdeko mailan, baina jarleku bakarra (bestea falta baita) herri aldera begira, estazio baten maketatxoa alboan. Baina Ismaelek aitatzen dituen hiru gelditupeez gain, badago beste osagai bat ere, barratik kanpo: Moilaberrian, tren geltokiaren



aurrealdean, marmol zurizko beste bi eserleku daude, Paolaldera begira.

Instalazioren bidez, egileak gonbidatu egiten gaitu: eseri, begiratu, ikusi, imajinatu... Auskalo, baina agian bi edo hiru pertsona eseriko dira aldi berean marmolezko jarlekuetan, eta elkarren begiradak gurutzatu egingo dira. Erraza da jolasean sartzea, eseri eta begiratu baino ez da egin behar, eta neuk ere proba egin dut: joan naiz Paoleko balizaren azpialdeko eserlekura, jarri naiz Moilaberriko jarlekua dagoen aldera begira, norbait ote dagoen han eserita... eta ezin ikusi! Zergatik? Lehen ez bezala, orain tartean ehunka tona hormigoi gris dagoelako! Barra berritu zutenean, altuera handiagoa eman zioten lehengo barrari, eta horregatik ezin da ikusi Moilaberriko jarlekua. Begirada etenda geratu zait.

Akordatu naiz beste begirada galdu batekin. Kanean daukagun gure artelan

berezienetako eta maiteenetako bat izango da Mariren bustoa, Errotako izkinan. Lehen, hortik, Mariren azpialdean jarrita, ederki ikusten zen itsasoa Santiago aldean eta erraz suma zitekeen bare edo haserre zegoen; gero, *pasarela* eraiki zutenean, Mariri berari ere itsasoa ezkutatu zioten, eta zer esanik ez guri. Galera hura ia oharkabean pasatu zen, eta inork gutxik protestatu zuen. Gaur egun, hego haizeak orraztutakoan edo itsasoa haserre dagoenean baino ez da ikusten olatuen gandor zuria.

Eskulturako nire jarlekutik, Moilaberri aldera begira, ez nago etsitzeko. Zer egin daiteke berriz ere hemendik Moilaberriko jarlekua ikusteko,

ESKULTURAKO NIRE JARLEKUTIK, MOILABERRI ALDERA BEGIRA, EZ NAGO ETSITZEKO

begiradak lotzeko? Aukera batzuk ikusten ditut:

- Badakit agian askotxo eskatzea izango dela, baina posible balitz, lehengo barraren gainean bota zituzten ehunka tona hormigoi horiek kentzea.
- Hori posible ez balitz, hormigoia zulatzea, zulo bat egitea alderik alde; ez handia, juxtu-juxtu begirada sartzeko eta irteteko, horixe besterik ez.
- Aurreko biak ezinezkoak balira, aulkia maila bat gorago igotzea, goiko balizaren ondora. Handik ederki ikusten da Moilaberriko estazioa.
- Eta aurreko hirurak ezinezkoak balira, lasai, utzi dena bere horretan, begirada oso estimulatzaileria izanagatik, irudimena bezalakorik ez baitago, eta Sarrionandiaren ipuinean bezala, mila istorio asma baititzake tristurak, baita begiak itxita ere. ■

¹ MANTEROLA, Ismael: "Artea Zumaian", Zumaia 650 urte, Zumaia Udal, 1999, 184-185. orrialdeak.



ASKE MAITE ASKE BIZI!

bertako
igogailuak | ascensores

www.bertako.eus

GIPUZKOA 943 903 450

PUBLIZITATEA

Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

MAIAUR

ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269  

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus PENCIL

estudio decoración



Julio Beobide, 2 - ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan



MENDI - ONDO S.L.

Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91



NOIA S.L.

**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Elengabeko garabi zerbitzua **636 86 78 12 (Zumaia)**
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com



OLIDEN

eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

OSA

BERNIZATUAK

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Korta Indutrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza

altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibitokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



SOLOZABAL

autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak
Psikomotritates - Naturopatia

www.sura.eus

Sura

SAINTZA
QINARRIAN

Patxita Etxezarreta 17 • 688 71 85 38

talaraia

taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Trapaia

Jantaria

Enbena kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



TTAKUN

Izustiari, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA

garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Salbitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 beheko - Tel. 943 573 905

Isiltasunaren kontra idatzitako gutun mingarria



ERAIKUNTZARAKO MATERIALA

Egilea: Eider Rodriguez
Argitaratzailea: SUSA
Argitaratze urtea: 2021
Orrialdeak: 256
Generoa: narrazioa



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Eraikuntzarako materiala dugu Eider Rodriguezek idatzitako azken liburua, eta aldi berean, bere lehenengo narrazio lan luzea, lehenengo nobela, "ez idatzi nahiago izango nukeena", idazlearen hitzetan. Korapiloak askatzeko balio du literaturak, eta xede horrekin dago idatzita. *Eraikuntzarako materiala* isiltasunaren kontra idatzitako nobela da, *ez fikzio*ko nobela. "Barruan neraman isilean ezin idatzizko iruditzen zitzaidana, sentitzen nituela jakin arren, hitz horien forma ezin aurkitutik. Esan nitzakeenik ere ez nekien eta esan ezin nituezen, idatzi egin ditut. Minari aurrez aurre begiratzeko modua izan da", dio idazleak egin dioten elkarrizketa batean.

Iktusa izan du aitak. Ospitalean dago. Heriotza ate joka dator. Lehenengo orritik jakingo du irakurleak ohean dagoenaren gainbehera lehenagotik zetorrela, medikuak aitaren arazo hepatikoa aipatzen duenean.

Aita eta alabaren arteko harremana erabat kutsatuta dago alkoholagatik. Narrazioak

familia harremanen zailtasunari buruz hitz egiten du, eta aita eta alaba ditu pertsonaia nagusi. Beraien artean sortzen den zirkuitu pribatu baten inguruan orbitatzen du liburu guztiak.

Eraikin batek lau pareta izan ohi dituen bezala, Rodriguezek lau zatitan banatu du liburua. 2008ko abenduan hasi eta 2019ko azarora arte iristen den egunerokoa da aurreneko bi atalen hezurdura, alabaren ahotsetik lehenengo pertsonen kontatua. Hirugarren partean, istorioak denboran atzera egingo du, iraganera eta narratzaile formatua eta tonua ere aldatu egingo dira. Idazleak lehenengo pertsonatik bigarrenera pasatuta, ohean ezagutu dugun aitari hitz egingo dio. Azkenik, laugarren atalean, aitak amari soldaduskatik bidalitako gutunak daude oinarrian, alabaren egunerokoaren txatal berriekin eta gutunei egindako oharrekin batera.

Harea, porlana, karea, eraikuntzako era guztietako materiala. Zerekin taxutu aitaren falta? Etxeak egiteko behar den guztia saltzen duen aita, alkoholak blaitutako aita,

euskara galdu duen aita. Heriotzaren atarian abiatzen du kontakizuna Rodriguezek. Heltzear da, helduko da heriotza, eta hainbestetan sofatik lan handiz altxatzen ikusitako aita, kalea balantzaka zeharkatu eta bulegoaren iluntasunean gotortzen den aita, hitzekin laztantzeko modu bat entseatuko du alabak.

Sentimendu ugari daude alabaren hitzetan, intimitate sakon batetik ateratakoak. Eta horrekin batera, garaiko Errenteriako giro soziopolitikoak: gatazka, etxebizitzaren booma, burges txikien bizimodua, bertakoak eta besteak, kanpotik etorritakoak, etorkinak, euskararen jabe ez direnak...; denek osatzen dute Eider Rodriguezen lehenengo nobela horren unibertsoa. Pertsonaia nagusiekin batera, jende ugari agertzen da inguruan, eta aitaran eta alabaren zirkuitu itxia puskatzen dute, eta kontakizuna aberastu.

Dena xehetasun handiz kontatua, zirujau batek bisturia astintzen duen zehaztasunez kontatua, alegia. Gogorra izanagatik, irakurtzea merezi duen narrazio ederra. ■■■

Berrenetik sortzen den abstrakzioa

ARTEA

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

Aizpea Larrañaga Arrizabalagak (Zumaia, 1972) *Oztopoak gainditzen* izeneko erakusketa izango du Alondegiko Oxford aretoan ekainaren 24tik uztailaren 10era. Lehen aldiz erakutsiko ditu bere lanak jaioterrian, eta "izugarritzko erronka" dela onartu du.

"Urduri samar banago ere, oso pozik nago", gaineratu du.

Orain zazpi urte hasi zen margotzen. "Hiru ume ditut eta jada koskortuta zeudenez, denbora libre dezente nuen.

Beti izan nuen margotzen hasteko gogo, baina ordura arte ez nuen denborarik izan", esan du. Bere kasa hasi zen pintzelekin lanean, zer aterako zen jakinminez. "Ettxeko sukaldean hasi nintzen, eta hala jarraitzen dut".

Margotzea momentuaz gozatzeko aukera bezala ikusten du. "Musika ere oso gogoko dut, eta margotzen dudanean biak batera erabiltzen ditut; plazera iruditzen zait. Orduak eta orduak pasatu ditzaket biez batera gozatzan", azaldu du artistak. Emaizari garrantzia handirik ez diola ematen gaineratu du. "Emaizak ez dit inoiz axola izan. Niretzat beti nahikoa izan da nire gustukoa izatearekin; barrutik ateratzen zaidana margotzen dut, *gaizki* edo *ondo* dagoen kezkatu gabe. Presio hori gabe momentuaz gehiago gozatzan dela iruditzen zait".

Bere lanak abstrakzioan murgiltzen dira. "Koadro



Aizpea Larrañaga Arrizabalaga.

figuratiboak ez zaizkit normalean gustatzen". Hala ere, ez da hori izan margo abstraktuak pintatzeko arrazoia. "Musika entzunaz mundu honetatik deskonektatu eta barrutik irteten zaidana margotzen dut. Gehiegi pentsatu gabe, ateratzen denari hurrengo egunetan begirada bat botatzen diot eta gustukoa izan ala ez, horren arabera gainera berriro margotzen ditut". Denborarekin, sortzen dituen koadroak desberdinak direla atzeman omen du. "Tarteka gauza desberdinak egiteko gogoia etortzen zait. Azken finean, denborarekin gustukoena dudana horretan gehiago zentratu naiz".

Barrutik sortzen diren lanak izanik, unean uneko egoera animikoak izango ote du bere

lanetan eraginik? Hala dela dio, bereziki hasiera haietan.

"Egoerak koloreetan eta itxuran eragina izaten zuen. Egia da aspaldian askoz lasaiago nabilela eta garbiago dudala zer koloreekin sentitzen naizen erosoan". Kolore okreak maite dituela dio. "Horiekin izugarri gozaten dut. Askotan, urdina erabiltzen dudanean ere, beti dago okre koloreko zertzeladaren bat".

Kontzienteki ez du helburu edo intentzio berezirik azaldu nahi bere lanetan. "Koadro batzuekin esan didate barne emozioak antzematen direla. Ez dakit. Koadro abstraktuekin gertatzen den bezala, beti irakurketa desberdinak egongo dira ikusleen begiradaren arabera". ■

AGENDA

ERAKUSKETAK

EKAINAK 9-19

Forondako ikastaroen pintura tailerra.

EKAINAK 24 - UZTAILAK 10

Aizpea Larrañaga, *Oztopoak* gainditzen.

DEIALDIAK

UZTAILAK 30 - ABUZTUAK 7

Musika jaialdia.

EKAINA

3 OSTIRALA

Antzerkia: Metrokoadroka, *Bidaide*.
Aita Marin, 20:00etan.

4 LARUNBATA

Topaketak: *Raixta edo elkarrekin piztu duguna*, Emakumeon* Etxean.
Egun osoan zehar.

Azken festa: Pilota eskola.
Odietan, 17:00etik 19:00ra.

Jaialdia: Boxeo.
Kiroldegian, 20:00etan.

5 IGANDEA

Omenaldia: 90 urtekoei. Kantu koraleko ikasleen eta Beheko Plaza abesbatzaren eskutik.
Hogarrean, 12:30etan.

8 ASTEAZKENA

Kontzertua: Jazz.
Mari klean, 19:00etan.

9 OSTEGUNA

Zine forum: *Mass*.
Aita Marin, 19:00etan.

10 OSTIRALA

Antzerkia: *Sexberdinak*, Tanttaka.
20:00etan.

Festa: Ludotekako ikasture amaiera.
Torreberrin, 21:00etan.

11 LARUNBATA

Bizikleta eguna.

12 IGANDEA

Txapelketa: Hondartzako eskubaloia.
Santio hondartzan.

14 ASTEARTEA

Ikuskizuna: Musika eskolako Dantza ikasleak.
Zumaienan, 19:00etan.

16 OSTEGUNA

Kontzertua: Musika eskolako ikasturte amaiera.
Beheko plazan, 18:30etan.

17 OSTIRALA

Berto afaria: Larrainak antolatuta.

18 LARUNBATA

Motor festa.
9:00etan hasita.

Beteranoen estropada.
18:30etan.

20 ASTELEHENA

Picnik.
Komentuko lorategian, 19:00etan.

21 ASTEARTEA

Kontzertua: Musikaren Europako egunaren aitzakian, San Pedro abesbatza.
Arrangoleta plazan, 19:00etan.

23 OSTEGUNA

Dantzak: San Juan Sua.
San Juan iturrian, 22:00etan.

Ondoren, Eki jaia.

25 LARUNBATA

Txirrindularitza: Gipuzkoako itzulia.
Joxe Mari Korta saria.
10:00etan.

Zeharkaldia: Igeriketa.
12:30etan.

26 IGANDEA

Estropadak: Zumaiako Ikurriña.



Laugarrena bai?



JUAN LUIS ROMATET

Trena badoa triki-traka. Bikote bat eztabaidan hasi da. Alemanez hitz egiten dute. Gizonezkoa egunkaria irakurtzen ari da; emakumeak zerbait esaten dio. Eztabaidaren bolumena igotzen doa. Pasilloaren beste aldean emakume gazte bat doa. Eskuan daraman liburuan murgiltzen saiatzen ari da, baina eztabaidak ez dio kontzentratzen uzten. Halako batean emakumeak kolpe bat eman dio gizonezkoari. Hori ikusita emakume gaztea besaulkitik jaiki, zorroa hartu, eta bagoiko beste eserleku batean eseri da. Pasilloaren beste aldean gizonezko gazte bat dago eserita. Bi gazteak bata besteari begira hasi dira zeharka. Bikote helduak, haserre, bagoia utzi du, eta bi gazteak hitz egiten hasi dira.

- Badakizu zertaz ari ziren? –galdetu dio mutilak neskari.

- Ez, nire alemana ez da oso ona –erantzun dio neskak-. Inoiz entzun duzu bikoteek zahartzen doazen heinean elkar entzuteko gaitasuna galtzen dutela.

Hala ezagutuko dute elkar Jessek eta Célinek *Before Sunrise* (*Egunsentiaren aurretik*) filmean. Jesse (Ethan Hawke) estatubatuarra da, eta Europan zehar bidaiatzen ari da; Céline (Julie Delpy) frantziarra da, eta Budapesten bizi den amona bisitatetik doa berriro Parisera. Trena Vienara bidean doa, eta estaziora heltzera doanean gaua elkarrekin pasatzea erabakiko dute.

Horrela hasten da Richard Linklater zinemagileak 1995. urtean estreinatu zuen pelikula, adin tarte bateko zinemazaleontzat zinemak eman duen maitasun istorio ederrenetako bat. Horregatik bakarrik, pozik egoteko arrazoiak izango genituzke. Baina, kontua da bederatzi urte geroago, 2004an, *Before Sunset* (*Ilunabarraren aurretik*) etorri zela. Vienan gertatutako istorioa liburu bihurtu du Jessek, eta Parisen egiten ari den aurkezpenera gerturatuko da Céline. Hizketan jarraituko du bikoteak Célineraren etxean amaitzen duten arte. Pantaila beltzean geratuko da, eta ikusleak ez du jakingo elkarrekin jarraituko duten ala ez.

Erantzuna bederatzi urte geroago etorri zen, 2013ko *Before Midnight* (*Ilunabarraren aurretik*) garratzean. Haurrak dituen bikotea krisi egoeran dago. Akabo lehen filmeko maitasun istorio nerabea; adio bigarrenko pelikulako konbertsazio amaigabeei; hirugarrenari, gogorra izanagatik, egia sumatzen zaio irudi eta elkarriketa guztietan. Eta lehen filmeko lehen minutuetako esaldia etortzen zaizu burura, zahartzen doazen heinean bikoteek elkar entzuteko gaitasuna galtzen dutela, alegia.

Bederatzi urte igaro dira aurrekotik, eta laugarren kapitulua egiten badute, orain tokatzen da, 2022an. Egingo ote dute? Auskalo. Zaletuok nahi al dugu? Nik ez, behintzat, trilogia perfektua delako. Baina, baina, baina... ■■■

**ADIN TARTE BATEKO
ZINEMAZALEONTZAT
ZINEMAK EMAN DUEN
MAITASUN ISTORIO
EDERRENETAKO BAT DA**



ZUMAIKO ENERGIA KOOPERATIBA

EGOTETIK EGITERA

Zumaian bertan eguzki energia
sortzera goaz. **Izan aldaketaren
parte, zatoz Eguterara.**

Egin aurre matrikula:

labur.eus/egutera

Zumaiko
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

ekiola

EKAINEAN, EROSKETA KARROAK ZURETZAT OPARI!!

*ERABILI KARROA
ZURE EROSKETAK EGITEKO
ETA
ZAINDU GURE PLANETA!!*

Ekainaren 8tik 26ra, 75 erosketa
karroak oparituko ditugu.



Euskadi, enpleatuen, hiriaren
ZUMAIA

GERTU
GERTU





Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2

943-57 49 86



Casa
BASUSTA
LORATEGIA



*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Aileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

Etxez etxeko zerbitzua!

Santiago auzoa, 18

943-86 26 11

www.floristeriabasusta.com